

BERMEON KALE SALMENTA BAIMENAK ESLEITZEA
KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA

Bermeoko Urian, Kultur Etxeko Gaztelekuan, 2016eko urriaren 4ean, goizeko 10:00 direnean, saio publikoan batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburuaren ordezkoa
Aingeru Astui Zarraga J^a, Zinegotzia
Pedro Bilbao Larrauri J^a, Zinegotzia
Xabier Ortuzar Butron J^a, Zinegotzia
Karmele Muñoa Arrigain A^a, Udaleko Idazkaria
Eduarne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Iñigo Glez. Arias J^a, Zerbitzu Saileko teknikaria
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, kontratazio mahaiaren idazkaria

Kontratazioaren helburua: Bermeon kale salmenta baimenak esleitzea

Batzarrari hasiera ematen zaio eta, behin betiko eskatzaile onartuen artean, salmenta baimenen zozketa egiten da. Honez gain, esleipenik gabeko eskatzaileen artean, edozelako bazarik egongo bailitzan, erreserba hurrenkera bat ere zozkatu da.

Honela, zozketa burutu ondoren honako hau erabakia hartzen da:

Bakarra: Zozketaren arabera salmenta baimena izateko aukera suertatu zaienei prozesuak ezartzen duen beharrezko dokumentazioa aurkezteko errekerimendua bidaltzea.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

